

IZEN DEITUREN NAZIOARTEKO LEGEDIA

1997-VII-16

*Mikel Gorrotxategi Nieto,
Onomastika batzordeko idazkaria*

Nazioarteko arategia dago Estanbuleko konbenioa deitzen dena, Alemania, Austria, Espainia, Frantzia, Italia, Luxenburgo, Herberreak, Portugal eta Turkiak sinatuta. Ez da beste hiritar baten izen aldaketarik onartuko, beraz Errepublikako subditoek ez daukate Erresuman izena aldatzerik. Nazionalitate bikoitza badu egin daiteke baina bigarren estatuan ere gauzatu behar da. Egingako aldaketak baliaagarriak dira edonon.

Izen deiturak direla eta lehengo arazoa izena bera da, hizkuntza askotan ez baitago argi deitura, ponte izena edo biak batera sartzten diren, horretarako erdua alemana izan daiteke hiru kategoriak bereizten baititu.

Estatua	Pertsona izena	Ponte izena	izen deitura
Espainia	Nombre	txipia Nombre Nombre propio Nombre de pila (1)	Apellido
Frantzia	Nom	Prenom	Nom (nom patronimy- que) (nomm de familie)
Alemania	Name	Vorname	Familiennname
Italia	Nome	Prenome	Cognome
Bretainia Handia	Name	Name	Surname

Mundu zabalean bi sistema nagusi dago arabe-eslaviarra eta europarra. Sistema arabe-eslaviarrean izenaren ostean familiaren ezaugarriak azaltzen dira *Ana Arkadievna Karenina* (*Ana Arkadieven* alaba *Karen A.* Karen-en emaztea. Sobiet Batasunean aldatu zen. Europarrean (frantsesa deitua) izenaren ostean

(1) Prenombre ere proposatu da. *Nombre de pila* erabil arren juridikoki ez du aginterik.

aitaren deitura jartzen da, anglosaxoiek ama tartean jartzea onartzen dute, baina egun hiru era nagusi daude Europan.

Deiturak

1. Mendebaldeko Europan, Espainia izan ezik, emazteak senarraren deiturak hartzen ditu eta seme-alabek deitura bakarra, aitarena.

2. Ekialdeko Europan, esku zabalagoak dira eta ezkontzean zein deitura hartuko duten edo biak gordeko dituzten erabakitzen da (Errusian berri bat ere jar daiteke).

3. Espainia eta Hispanoamerikan seme-alabek deitura bi hartzen dute, emazteak normalki berea gordetzen du.

Kanpoko deiturak direla eta Frantziako joera zabalena da soinu moldaketa ez ezik **itzulpena ere onartzen baita** (aleman zein arabetik) bertako hizkuntz ofizial bakarrera noski, Espainian ordea aldaketa fonetikoa baizik ez da onartzen.

Dudarik gabe eskuzabalenak Sobiet Batasun eta Herbereetako legediak dira.

Ponte izenak

Europan antzekoa da legea, tokian tokiko berezitasunekin. Espainian edozein izen arrunta edo propioa onartzen da. Frantzian berriz ez dira izen arruntak onartzen. Orokorrean ez da sexu nahasketarik onartzen, hala ere.

Aldaketak

Hiru jarrera dago:

— Aldatzea libre dutenak: Estatu Batuetako estatu gehienak.

— Aldatzea, erraza baina eroldan eman behar dena: Ingalaterra eta Estatu Batuetako estatu batzuk

— Aldatzea ezinezkoa dutenak: gainerako guztiak. Hala ere, Espainako le-gizlazioa eskuzabalagoa da Frantziakoa baino (atzeritarrak alde batera utzita) deiturak ofizialak diren hizkuntza guztietan eman daitezkeelako. Horretaz gain kasu mugatuetan ere alda daitezke (izen-deitura iraingarriak, etab.).

Orokorrean Espainia eta Hispanoamerikan izan ezik emazteak senarraren deiturak hartzen ditu.

ESPAINIA

Ponte izena, gehienez bi, eta deitura bi, aitarena eta amarena, teorian umeez 18 urte bete eta gero deituren ordena alda dezakete.

Deiturak berez gaztelaniaz daude, euskaraz eman daitezke baina horretarako oztopo asko dago.

Aldaketa egitea Ministeritzaren esku omen dago (legedia iluna da puntu honetan epaileen esku dagoela diotenak badaude eta) eta epe luzea behar da, dohainik bada ere.

Gauzatzeko honako hau behar da:

Euskaltzaindiaren agiria.

Berez horrela erabiltzen denaren froga (normalki agiriak eskatzen dituzte).

Zenbait agiri solte (errolda, bataio, eskaera).

Horretaz gain aldaketak onartzen dira deitura iraingarriak (*Laca Gamos*) direnean, Espainiako deitura galtzeko zorian egon edo deitura nabarmena gordetzeagatik.

Ponte izenak

1919an edozien erlijoren izenak, edo historiakoak erabili ahal ziren, izen abstraktoak debekatu. 1932an arautegia zabaldu zen izen abstraktoak eta euskarazkoak onartuz. 1939an aldatu zen eta Errepublika garaikoak (Libertad, Edurne, Kepa,...) debekatu ziren eta 60 eguneko epea eman zen aldatzeko. 1977an egin zen lehengo aldaketa eta 1980an azkena.

Edozein hizkuntzatan eman daitezke, edozein hitz erabil daiteke, hitz arrunta zein toponimo.

Debekuak:

Bitxiak, pertsonentzako desegokiak (2) erlijioarenkontrakoak, subertsiboak, eta deiturak.

Nahasketa sor dezaketenak, batez ere sexuarena (3).

(2) Aberen izenak edo eta irainak. Izen historikoak mitologikoak artistikoak etab. mundu zabaleko zein eskualde batekoak onartzen dira, baila leku izenak ere.

(3) Neba-arreben arteko bereizketa eta sexu nahasketaren nazio gehienetan eskatzen da, izen bat nahiko argia ez izatekotan Maria edo Jose jar dakiok, nahiz eta berez eskuzabalago jokatu.

Gaztelaniazko ohiko itzulpena dituzten kanpoko izenak (4).

Hipokoristikoak.

FRANTZIA

Legez Jaio berriak ponte-izena *pre nom* eta deitura *nom patronymique* izan behar du, bigarren hau aitarena (1.11) Emazteak ez du nahitaez senarraren deitura erabili behar, eskubidea badu ere.

Deitura

Deiturari leku izena gehi dakioke (118) baldin eta familian erabiltzen zen (nobleen lurra batik bat).

Estatu Kontseiluari dagokio aldatzea (eta kasu gehienetan familia osoak egin behar du) eta frantsesteraen kasuan izan ezik **intérêt légitime** izan behar du. Aldaketa egiteko XI. urteko *germinaleko* 11 .eko legedia erabili behar da.

164. art.: Jaio-agiria alda daiteke benetako aita hor azaltzen dena ez izatekotan.

190. art.: *Grotesque* bada, hiltzaile batena, bi famili bereizteko edo go-raipatzeko.

191. art.: Ezizena ezagun bihurtu bada (Leclerc).

223. art.: Ahoskatzea errazteko, batez ere kanpo izenak.

225. art.: 1945ez geroztik juduek alda dezakete.

282. art.: Frantsestu ahal da. Horretarako bi bide dago, itzulpen (traduction en langue française: Eisenberg-Monfferrant, Goidenberg-Montdor) edo moldaketa ahoskatzeko (Macaroní-Macart), soilik nazionalitatea eskuratzean, eta 6 hilabeteko epea dago.

Aberriaren alde (*mourt pour la patrie*) hildakoen izen-deiturak ere berreskura daitezke, familiako azken gizonetakoak izatekotan.

Deiturak direla eta frantsesa ez den este hizkuntzarik ez da aipatzen, ez balira bezala.

(4) Ohiko itzulpena aipatzean jendearentzako ezaguna dena ikerketan sartu barik. Esther, Jacqueline, Giovanna, Sarah, Christian (kanpotar itxura handia dutenak). Dena den holakoak debekatzea epailearen esku dago. Aurreko kasuetan bezala berez legeak agintzen duena baino esku zabalago jokatzeko da.

Ponte izenak, 1

XI. urteko germinaleko 11.eko legeak arautzen du (321), Hala ere, 1993an aldaketa batzuk egin zituzten.

Ez dira izen politikoak edo iraingarriak onartzen eta historiako izenak eta "calendries" ofizialak erabili behar dira eta frantsesez (hau geroago aldatu zuten) (324). Gizonezkoen izenak *ferminiza* daitezke.

Egungo egoera:

Onartzen dira:

1. Mitologikoak.
2. Frantziako hizkuntzetakoak.
3. Kanpotarrak.
4. Izen arruntak eta familia izenak zaharrak direnean (Xavier).
5. Izen konposatuak.
6. Kasu gutxitan: Txikigarriak, baina kontuz (*certaine prudence*) eta izen konposatuen laburpena (*Marianne*), eta ortografia aldaketak (*Michelle/Michèle*).

Ez dira onartzen:

1. Fantasia edo izen arrunt moduan erabiltzen ez direnak (gauzak, animaliak, teatroa, politika, etab.)
2. Leku izenak ez dira beti onartzen, Manhattan.

Izena aldatzeko arrazoiak:

1. Beste familiak adoptatzea.
2. Nazionalitatea hartzea.
3. Umeek ere eska dezakete.

Berezko interesa (intérêt légitime) ere aipatzen da: juduek, kanpotarrek Frantzian izen frantsesa jartzeko eta frantsesak kanpoan izen atzerritarra.

Garapena

Musulman batek izen musulmana ipintzeko.

Txikigarriak onartzen dira egokiak direnean.

Arrazakeria dela eta integartzeko onartzen da.

PORTUGAL

Emazteak senarrarena erabil dezake. Sema -alabek bi hartzen dute amarena eta aitarena. Nahi badute lau erabil dezakete, guztiak familikoak eta azkenak aitaren leinukoa izan behar.

BELGIKA

Senar emazteek gordetzen dituzte deiturak.

Justizia Ministeritzak eta Erregeak onar dezakete deitura zein izen aldaketa nahasketa sortu edo iraintzen ez badu.

Ponte izenak

Nahasketa edo kalte egin dezaketen izenak daude galerazita "confusion ou pouvant nuire". Besterik ez du zehazten.

ITALIA

Nahi beste ponte izen eta deitura bakarra. Emazteak senarraren deitura hartzen du baina bere deitura erabil dezake eta agirietan erabili behar du.

Deitura

Umeak aitarena eta emazteak senarrarena.

Aldaketak Errepublikako Lehendakariak edo Justizia Ministeritzak onar ditzakete arrazoia ikusiz gero.

Ponte izena

Izen historikoak eta erlijioenak aipatzen dira, batez ere katolikoak.
Debekatuta dago:

1. Aita ama eta neba-arrebeen izenak nahasketa ez sortzeko.
2. Deiturak.
3. Izen lotsagarri, nazio edo erlijio kontrakoa, etab.
4. Leku izenak.
5. Kanpoko izenak.

BULGARIA

1989an onartu zituen izen Turkoen erabilera, baina ez oso. Nork bere deitura gorde dezake edo biek batena (haien esku dago zein aukeratzea).

SUEDIA

Gobernuak deiturak aldatzeko kanpaina egin zuen *izena+son* modukoak kentzeko, horrela *Peterson Jernud* bihurtu zen. Emazteak senarrarena hartzen du eta berea gehi dakioke ala gorde aldatu gabe horrela eskatuz gero.

ALEMANIA

Izena (bat edo gehiago) eta deitura bakarra, aitarena. Emazteak senarrarena hartzen du, eta hala eskatuz gero deitua bikoitza izan dezakete senarrarena+berea

AUSTRIA

Emazteak senarraren deitura hartzen du.

SUITZA

Emazteak senarraren deitura hartzen du, eta nahi izanez gero bere deitura gehi dakioke. Lanean edo jende aurrean bere deitura erabil dezake.

HERBEREAK

Emazteak zein senarrak bestearen deitura erabil dezake, eta ohitura dago emazteak senarrarena berearen aurrean erabiltzeko.

NORBEGIA

Emazteak senarrarena har dezake baina berea aurretiaz jarrita.

DANEMARKA

Emazteak aukeran du berea edo senarrarena erabiltzea.

ALBANIA

Nork bere deitura gorde dezake edo senarrarena hartu.

SOBIET BATASUNA

Ezkontideek deiturak gorde ditzakete, bietako bat hartu edo beste berri bat hartu.

TXEKOSLOBAKIA (desegin aurretik)

Nork bere deitura edo bat bientzako. Deitura biak erabiltzen badituzte seme-alabek zein edukiko duten erabaki behar dute.

HUNGARIA

Emazteak berea gordetzeko ezkondu aurretik adierazi behar du, bestela senarrarena hartzen du.

ERRUMANIA

Ezkontzean zer egingo duten adierazi behar dute, biak gorde, bat hartu edo biak batu.

BREAINIA HANDIA

Emazteak senarrarena hartzen du ohitura dagoelako.

Ponte izena eta deiturak oso errez aldatzen dira, errezago deitura.

1. Deitura aldaketa. Emakumeek bikotearena har dezaketa ezkondu gabe egon arren. Badago oso konplexua eta garestia den bide bat, baina ez da erabiltzen, aldatzeko nahikoa da abokatu batek agiri bat egitea eta 10 txelin ordaindu.

2. Ponte-izen aldaketa. Berez bataioan ematen da eta ezin da aldatu, baina jaunartzea egitean alda daiteke.

ESTATU BATUAK

Emazteak senarrarena hartzen du ohitura dagoelako, ez legea.

Estatu gehinetan deitura eta izenak aldatzea libre da eta ez da erroldatu behar.

ARGENTINA

Lehen emakumeak biak erabili behar zituen *berea+de+senarrarena* eta ez egitekotan dibortzitzeko arrazoia zen, orain bere esku dago. Seme-alabek aitarena erabili behar dute, amarena berriz aukeran dute erabiltzea ala ez.

BRASIL ETA PUERTO RICO

Emazteak senarraren deitura hartzen du.

GUATEMALA

Emazteak nahi badu bere deitura atzean senarrarena jar dezake. Seme-alabek deitura bi, aita eta amarena.

PERU

Emazteak bere deitura atzean senarrarena jartzen du. Seme-alabek deitura bi, aita eta amarena.

BOLIVIA, EKUADOR, KOLONBIA, MEXIKO, NIKARAGUA, VENEZUELA

Seme-alabek deitura bi, aita eta amarena.

ISRAEL

Emazteak senarrarena hartzen du, nahi izanez gero berea gehitu ahal dio edo gorde. Deiturak hebraierara itzuli edo zeharo aldatu ahal dira.

IRAK

Emazteak, nahi badu senarrarena erabil dezake.

TXINA

Andreak senarrarena gehitzen dio bere deiturari, eta Chiu-fiu-k (emaztearen etxera ezkontzen dena) ere gauza bera egiten du.

JAPONIA

Ezkontideek bestearen deitura hartzeko eskubidea dute.